



Los Moñas taldea 2004an osatu zen eta Mungia dute euren bizitoki. Los Moñas taldea eratu zutenean garbier zutena zen ahalik eta ondoen igaro nahi zituztela kantuek egiteko eta jotzeko une zirrargarri horiek. 2005ean "Yamomopipipapo" diskoa argitaratu zuten. Oso talde alaiak da eta ongi pasatzea dute helbururik handiena. Musikarekin beste horrenbeste egin nahi dute: ahalik eta txinparta gehien atera ikusle-entzuleari. Rocka eta popa lantzen dute nagusiki. Kantu errazak eta konplikaziorik gabeak dira.

1.- "Vitaminas" disko bikoitza izateaz gain, bi estilo eta bi norabide ditu?

Bai, hala da, "Vitaminas" disko bikoitza da eta "txanpon beraren bi aldeak" bezala deskribatzen dugu. Lehengo CDan, gure alderik punkena agertzen dugu, gitarra sendoekin eta ahotsa musikarekin bateginik sartuz. Bigarren CDak gure aurpegirik poperoena azaltzen du, ahotsa presenteago dago eta soinua 60ko hamarkadara hurbiltzen da. Disko honek "Vitaminas" du izenburua indar baikor eta kolore anitzeko disko bikoitza delako.

Los Moñas taldearen bigarren diskoa bikoitza da eta "Vitaminas" du izenburu. Bi diskoek Los Moñas taldearen arima ageri dute. Batzuetan, Los Moñas taldeak rockaren iturrira bidaia gehiago egiten ditu eta rockaren edaria gustukoago du. Besteetan, poparen has-tapenetara doa eta poparen osagaia nabarmenagoa da rockarena baino. Txanpon beraren bi aldeak; hots, Los Moñas taldekideen aurpegi biak bat eginik. Lehen CDan rocka, garajea eta abesti gordinak poparekin nahasturik. Lehen disko honen sustraietara joko bagenu, gertu izango genituzke punkaren aztarnak, Ramones taldearen lañotasun energikoa edota rock hutsal bezain itsaskorra eta gogoraeraza. Los Moñas taldeak goitik behera sinesten du rock arin eta eranskor horretan. "Bat, bat, bi, hiru, lau" esan orduko kantuen norabidean sartu gaitu "Vitaminas" diskoak. Bigarren CDan Los Moñas taldea beste ikuspegi batekin ageri zaigu, 60ko hamarkadako popa eskaintzen digute. Baina, beti ere, rock-pop alaiak. Popa rockaren ikuspegitik astindua eta kantatua.

2.- Britainiakoak baino ameriketakoak diren eragin gehiago aurki daitezke?

Uste dugu ez dugula soilik Ameriketako eta Britainiako musikaren eragina; espainiar estatuko eta Euskal Herriko rock erradikalak ere eragina izan dute gudan. "Konplexurik gabeko taldea gara".

3.- Testuetan bitamina bila zabilzate, eta baita bihotzen, munduen eta emozioen bila...

Eta gure burutik pasiran dabilzan emozioen bila, era horretan jendeak gure abestiak entzuten dituztenean zer sentitzen duen jakin nahi dugulako eta euren larruan jarri. "Estralurtar bizigabeak" bezalako testuaz gain, gure kantuetan sexua, drogak, egoera kulturalak, rock and rolla ageri dira, eta autobiografikoak diren hitzak ere tartekatzen ditugu.

ritxi aizpuru (2008ko apirilaren 15a)

Los Moñas taldearen "Vitaminas" disko bikoitza bi alditan grabatu da. Lehen CDa 2007ko irailean grabatu da eta bigarren CDa 2006ko irailean; biak ala biak, Mungiako Lamiña estudioan. Grabaketa, nahasketak, konponketak eta ekoizpena Natxo Liberty soinuz teknikariak egin ditu, eta 2008ko hasieran Kanadako Dave Horrocks teknikariari bidali zaio diskoa masterizatzen.

Aitor Gamboa (Txanpi): ahotsa eta gitarra • Iban Hernandez (Moñas): ahotsa, baxua • Fran: bateria